

KUBAK OSASUN PUBLIKO EREDUGARRIA ESPORTATZEN DU COVID-19 GARAIOTAN

COVID-19 krisia hasiz geroztik Kubak 179 mediku, 399 erizain eta hamabost teknikariz osatutako hamabost brigada barreiatu ditu munduan zehar, Latino Amerika, Karibe eta baita Europako herrialdeen eskariz ere –tartean Italia, Andorra eta Frantzia bera Martinikarako...–. AEBek ezarritako blokeo ikaragarriaren erdian, Kubarentzako tresna geopolitiko garrantzitsua dira brigadok, iraultza sozialistaren balioen erakusgarri izateaz gain.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Apirilaren 12an Italiako Turingo aireportuan lur hartu zuen 21 mediku, hamasei erizain eta koordinatzaile logistiko batez osatutako brigada kubatarrak. Italian COVID-19aren kontrako borrokara Kubatik iritsitako bigarren taldea zen: horra Europa aberatsen osasun sistema ustez moderno bat pandemiari aurre egin ezinik eta bizi-maila askoz txiroagoko herrialde bateko profesionalak laguntzera etorriak...

Frantziak ere Hexagonorako ez baina Martinikarako onartu zuen beste brigada bat. Apiril hasierako egunik gogorrenetan Espainiak ere gustura onartuko zituen pare bat baino gehiago –tartean Valentziako erkidegoak horietara jo nahi zuelako–, ez balitz NATOren eta AEBen errepresalien beldur izan.

Kubako Gobernuak ofizialki aitortu duenez, bere osasun langileak COVID-19aren kontrako elkarlan operazioetan ari dira mundu osoko 40 herrialde baino gehiagotan. Espresuki koronabirusaren kontrako borrokara joandakoak dira terapia intentsiboetan, biologiari, epidemiologiari eta farmakologiari berezitatutako profesionalak –Italiara joandakoen artean, medikuntza orokorreko 23 doktore, hiruna pneumologo, ZIUKo espezialista, infekziologo eta larrialdietako langile, gehi hamabost erizain (zazpi intentsibista) eta logistikako arduradun bat–. Kubak 11 milioi biztanleren artean 95.000 mediku baino gehiago dauzka, 1.000 biztanleko

9 –AEBek 2,6 baino ez daukate–, gehi 85.000 erizain. Osasun zerbitzuetako langileek orotara 492.000 pertsonako multzo handia osatzen dute.

COVID-19aren krisia hasi aurretik, Kubako Osasungintzako Elkarlanerako Unitate Zentralak 28.729 langile zeuzkan mundu osoko eta kolore guztietako 59 herrialdetan sakabanatuta: Saudi Arabia, Aljeria, Cabo Verde, Qatar, Kenya, Mongolia, Niger, Hego Afrika, Turkia, Uruguai, Venezuela, Vietnam, Zimbabue... 2015-2018an 50.000 langiletik gora (erdiak medikuak) zeuzkan bidalita 69 herrialdetara. Geroztik neoliberalak Latino Amerikan hartu duten indarrarekin, etxera itzuli behar izan dute Brasilen (8.471), Ekuadorren (382) eta Bolivian (725) lanean ari zirenak, hauetako gobernuak elkartasun operazioak etenda.

Le Vent Se Leve aldizkarian Antoine Bourdonek kontatu duenez, 1959an Fidel Castroren gidaritzapean iraultzaileek agintea hartu zutenetik Kubak osasun sistemaren garapena ipini zuen lehentasunen artean hezkuntzarekin batera, munduan erreferentzia izan nahian, sistema berriak gizakiaren garapena lehenesten zuela erakusteko eta, horrekin batera, “diplomazia mediku” oso bat garatzeko.

Hasiera gozoa ez zuten izan, ordea: mediku eta medikuntza irakasle askok ihes egin zuten iraultzaren garaian. Ernesto ‘Che’ Guevararen –medikua bera ere– garaietan *garun ihesi* masibo hari

adabakia jartzea izango zen, beraz, lehenbiziko beharra. Hasteko, iraultzaileek osasun sistema osoa nazionalizatu zuten, botika eta tratamenduen prezioa jaisteari ekin eta azkenerako, Kubako konstituzioan ezarri osasun zerbitzuak doakoak izatea.

Osasun sistema kubatarra bi oinarriren gainean antolatu da: prebentzioa eta hurbiltasuna. Horiek lekuko poliklinika sarean mamitu dira, zeintzuetan ospitaleko tratamendutik harago, eritasunak klinikara iritsi aurretik detektatu eta mugatzeko lana ere egiten baita. 1984an “oinarrizko osasun taldeak” artikulatu ziren uharte osorako, mediku bat eta erizain batez osatuak: ekipo horietako bakoitzak 2004an 120-150 herritarren osasuna zaintzen zuen.

ELKARTASUNA BAI, SOFTPOWER ERE BAI

Kubako osasun sistemak aurre egin behar izan zion 1989ko krisi handiari, urte hartan Sobiet Batasuna eta bere bloke ekonomikoa hondoratu zirenean. Solaskide komertzial gehienak galdu eta ondoren, AEBetako agintariak uhartea ito nahian 1992an *Cuba Democracy Act* legearekin blokeoa gaineratuta, *Periodo Especial* delako aro latza zeharkatu behar izan zuten herritarrek, klase guztietako murrizketak nozitu. COVID-19agatiko itxialdia ezagutu duen europarrak berak nekez pentsatu ditzakeen bezalako zailtasun eta gabeziak su-



HENRY REEVE BRIGADA.
 MEDIKU ETA ERIZAIN
 TALDE BAT APIRILAREN
 HASIERAN HABANATIK
 ITALIARANTZ
 ABIATZERAKOAN,
 PIAMONTEKO ESKUALDEAK
 KUBAKO GOBERNUARI
 EGINDAKO ESKARIARI
 ERANTZUNEZ. (ARGAZKIA:
 ARIEL LEY ROYERO).

fritu zituzten kubatarrek urte haietan. Hura gainditzeko ahaleginean, egoera ekonomikoa pittin bat kontrolatu bezain laster ekin zion Kubak botiken ekoizpen nazionala bermatzeari –yankiek kontrolatutako farmazia konpainien zepoari ihes egiteko-. Ildo horren emaitza dira bioteknologiako proiektu kubatarrek ere, hainbat tratamendu berri sortzera eraman dituen. Tartean, COVID-19aren kontra esperimentatzen ari diren *Interferon Alfa* ezaguna.

Atzerriko beste gizarteei estutasunetan medikuz eta erizainez laguntzeko estrategiari ere oso goiz heldu zion Kubak, lehenbiziko misioa 1962an Aljeria independizatu berrira bidalita. Geroztik, gehienik hondamendien ondorio humanoak artatzen zentratu da Kubaren atzerriko laguntza, *mediku diplomazia*

tresna geopolitikotzat erabiltzeaz gain laguntza horren ordainekin uharteko osasun sistema pagatzen laguntzeko.

Kubak atzerriko laguntza honi *softpower* –harreman internazionaletan *hardpower* diren armak edo ekonomiarekin konpetitu ezin dutenez– atera dion zukua hainbat ikerlarik aztertua dute, hala nola Patrick Howlett-Martinek “*Kubaren nazioarteko elkarlan medikua: ordaina izan duen eskuzabaltasuna*” liburuan. *Softpower* horren erakusgarria izan zen 2014an Ebola krisi bati aurre egiteko Mendebaldeko Afrikara Kubak bidalitako doktore eta erizain ekipo sendoaren lanak jaso zuen mundu mailako txaloa, orduan Barack Obamaren Atzerri Ministro zen John Kerryrena tartean.

Diplomaziako tresnaz gain diru-sarrerera iturri ere bada nazioarteko elkar-

lan hau. Iturri batzuen arabera, Kubako ogasun publikoari urtean 11.000 milioi dolar ekartzera iritsi zen, askoz zalaparta handiagoa eraginez turismoak ekartzen zizkionak baino gehiago. Hori 2018a baino lehenago zen, hortik aurrera hasi baitziren ilaran Brasil, Ekuador eta Bolivia kanporatzen laguntzaile kubatarrek –ultra-eskuindarren obsesioetako bat–.

Kubak laguntzaren truke herrialde bakoitzari kobratzen dion tarifa izaten omen da bertako profesionali pagatzen zaiena. *Die Welt* egunkari alemanak iturri ofizialetatik jaso duenez, atzerrira bidalitako langile bakoitzari Kubak ordaintzen dio tarifa horren %20 eta %30 artean, gainerakoa Estatuak hartzen du bere gain. Kuban bertan 1.200-1.850 peso (43-64 euro) kobratzen dituen. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 - 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

f